

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

“Reziklaraba, Arabako berrerabiltzeko prestakuntza zentroa ustiatzeko zerbitzua”-ren emakida kontratatzeko kostuen egituraren proposamena jendaurrean jartzea

Arabako berrerabiltzeko prestakuntza zentroa, Reziklaraba, Jundizko industrialdean dago, Vitoria-Gasteizen, eta eraikitzen amaitu dute. Zentro berri hori konpontzera eta berrerabiltzera bideratuta dago, eta urtean 6.400 tona tratatzeko ahalmena izango du.

Eraikuntza lana amaituta, kontrataziorako lizitazioa prestatzen ari da. Bertan, funtzionamendurako behar diren ekipoak erosi eta instalatzea, bai eta instalazio berrien finantzaketa, eragiketa eta mantentzea ere sartzen dira, administrazio preskripzio partikularren eta teknikoen agirietan jasoko diren baldintza eta eskakizunen arabera.

Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9. artikulua xedatzen duenez, kostuen egituraren proposamenak nahitaezko jendaurrean jartzeko izapidea bete behar da hoguei egun balioduneko epean.

Iragarki honen bidez, jendaurrean jartzen da kostuen egituraren proposamena, hoguei egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dokumentuak eskuragarri daude Arabako Foru Aldundiaren gobernu irekiaren atarian, hemen: <https://irekia.araba.eus/eu/emakidak>.

Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera administrazio publikoekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dauden gainerako pertsonak telematikoki aurkeztu beharko dituzte nahitaez alegazioak. Gainerakoak bitarteko elektronikoen bidez edo aurrez aurre egin ahal izango dituzte, Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean. Hori guztia 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan araututako bitartekoren baten bidez aurkezteko aukerari kalterik egin gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko irailaren 21ean

Natura Ingurunearen zuzendaria

MARÍA JOSÉ MADEIRA GARCÍA